**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**

**249. zenbakia** **Data 2003-12-31** **22721 orria**

**3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**
GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK
**Abenduaren 18ko 1311/2003 FORU AGINDUA, 840 eta 841 Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren eredu berriak onartzen dituena.**

---

## Fiskalitaterako eta finantzetarako Departamentua

*Abenduaren 18ko 1.311/2003 FORU AGINDUA, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 840 eta 841 eredu berriak onartzen dituena.*

Martxoaren 19ko 4/2003 Foru Arauak, toki entitateen zerga sistema eraberritu duenak, aldaketa garrantzitsuak sartu ditu Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailean.

Aldaketa horiek zergaren hainbat aspektu ukitu dituzte. Batzuk aipatzekotan, nabarmendu daiteke aldaketa horien ondorioz jarduera hasten duten subjektu pasiboak Zergatik salbuetsita geratzen direla jardueraren lehen bi zergaldietan, eta udalei hobariak ezartzeko ahalmena ematen zaiela.

Dena den, neurri fiskalik garrantzitsuena honako hau da beharbada, subjektu pasiboak Zergan salbuetsita daudela beren eragiketa bolumena 2 milioi eurotik beherakoa denean.

Aldaketa horiek sartu izanak aitorpen eredu berriak onartu beharra ekarri du berekin, esandako aldaketak haien barruan jaso daitezen. Eredu hauek dira hain zuen: 840 aitorpen eredua, eta 841 eredua, jarduera ekonomikoari zeharka atxikitako lokalari buruzkoa.

Horri dagokionez, azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketari buruzko alderdi batzuk arautzen dituenak, ezarrita utzi zuen 3.2 artikuluan Zerga hori aitortzeko ereduak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru aginduaren bitartez onartuko direla. Bada, ekainaren 30eko 33/2003 Foru Dekretuak, Aldundi honetako departamentuak ezarri eta haien eginkizunak eta jarduera esparruak finkatzekoak, xedatutakoari jarraiki, eredu horien onarpena Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru aginduz egingo dela ulertu behar da.

Horren indarrez, honako hau

xedatu dut

*1. artikulua. 840 eta 841 ereduak onartzea.*

Onarturik geratu dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren honako inprimaki ereduak:

a) 840 eredua. Jarduera ekonomikoen aitorpena.

Eredu hori jarduera ekonomikoak hasi edo amaitzen direnean aurkeztu beharko da, bai eta jarduera horietan aritzean zerga alorrean garrantzia duten aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak daudenean ere.

840 eredua I. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

b) 841 eredua. Jarduera ekonomikoari zeharka atxikitako lokalaren aitorpena.

Jarduera ekonomikoari zeharka atxikita dagoen lokalari Zergaren matrikulan alta edo baja emateko aurkeztu beharko da eredua, bai eta lokalari buruzko datuak aldatzen direnean ere.

841 eredua II. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

*2. artikulua. Aurkezteko epea.*

Bat. Alta aitorpenak jardueran hasi aurreko lehen hamar egunen barruan aurkeztuko dira.

Bi. Aldaketa eta baja aitorpenak hilabeteko epean aurkeztuko dira, jarduera aldatu edo amaitzen denetik aurrera.

*3. artikulua. Non aurkeztu.*

Bat. Alta aitorpenak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Atalean aurkeztuko dira -Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan- edo, bestela, zerga bulegoetan.

Bi. Aldaketa eta baja aitorpenak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Atalean -Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan- aurkeztuko dira, bai eta zerga bulegoetan eta udaletan ere.

## Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe geratzen da otsailaren 22ko 122/2000 Foru Agindua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 840 eta 841 ereduan aldatzen dituena.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2003ko abenduaren 18an. —Juan Jose Mujika Aginagalde, Fiskalitaterako eta Finantzetarako departamentuko diputatua.

(13368) (13195)

I –II ERANSKINA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentua
Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas
www.gipuzkoa.net/ogasuna

# Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
# Impuesto sobre Actividades Económicas

## Jardueren aitorpena
## Declaración de Actividades

| ALTA / ALTA | ☐ | BAJA / BAJA | ☐ | ALDAKETA / MODIFICACION | ☐ |
|---|---|---|---|---|---|

**840**

Jardueraren zk.
Nro. Actividad

## SUBJEKTU PASIBOA / SUJETO PASIVO

| NA/IFZ<br>D.N.I./N.I.F.<br>1 | Deiturak eta izena edo sozietate izena<br>Apellidos y Nombre o Razón Social<br>2 | Telefonoa<br>Teléfono<br>3 |
|---|---|---|

| Zerga helbidea / Kalea edo plaza<br>Domicilio Fiscal/ Calle o Plaza<br>4 | Zenbakia<br>Número | Letra<br>Letra | Eskailera<br>Escalera | Oina<br>Piso | Eskua<br>Mano |
|---|---|---|---|---|---|

| Udalerria<br>Municipio<br>5 | Gakoa<br>Clave | Posta kodea<br>Cód. Postal | Probintzia<br>Provincia<br>6 | Gakoa<br>Clave |
|---|---|---|---|---|

## ORDEZKARIA / REPRESENTANTE

| Ordezkariaren NA<br>D.N.I. Representante<br>10 | Ordezkariaren deiturak eta izena<br>Apellidos y Nombre del Representante<br>11 | Telefonoa<br>Teléfono<br>12 |
|---|---|---|

| Helbidea: kalea edo plaza<br>Dirección: Calle o Plaza<br>13 | Zenbakia<br>Número | Letra<br>Letra | Eskailera<br>Escalera | Oina<br>Piso | Eskua<br>Mano |
|---|---|---|---|---|---|

| Udalerria<br>Municipio<br>14 | Posta kodea<br>Cód. Postal | Gakoa<br>Clave | Probintzia<br>Provincia<br>15 | Gakoa<br>Clave |
|---|---|---|---|---|

## JARDUERAREN DATUAK / DATOS DE LA ACTIVIDAD

| Jardueraren udalerria<br>Municipio de la Actividad<br>20 | Gakoa<br>Clave<br>21 | Posta kodea<br>Cód. Postal | Probintzia<br>Provincia<br>22 | Gakoa<br>Clave<br>23 |
|---|---|---|---|---|

| Jardueraren helbidea<br>Domicilio de la Actividad<br>24 | Gakoa<br>Clave<br>25 | Zenbakia<br>Número<br>26 | Letra<br>Letra<br>27 | Eskailera<br>Escalera<br>28 | Oina<br>Piso<br>29 | Eskua<br>Mano<br>30 |
|---|---|---|---|---|---|---|

| Egindako jarduera edo egin beharrekoa<br>Actividad ejercida o a ejercer<br>31 | Sekzioa<br>Sección<br>32 | Epigrafea<br>Epígrafe<br>33 |
|---|---|---|

| | |
|---|---|
| Jardueraren hasiera, baja edo aldaketa eguna<br>Fecha de comienzo, baja o modificación de la Actividad | Urtea-Hila-Eguna<br>Día-Mes-Año<br>34 |
| Ordainagiriaren zk.a, baja edo aldaketarik bada<br>Número de recibo en caso de baja o modificación | Zenbakia<br>Número<br>35 |
| Jardueraren esparrua<br>Ambito de la actividad<br>36 | Gakoa<br>Clave<br>37 |

## ZERGA HELBIDEA GIPUZKOATIK KANPO DUTEN SUBJEKTU PASIBOENTZAT SOILIK
## SOLO PARA SUJETOS PASIVOS CON DOMICILIO FISCAL FUERA DE GIPUZKOA

| Jarduera hasi den urtea<br>Año de inicio actividad<br>38 | ERAGIKETA BOLUMENA / VOLUMEN DE OPERACIONES | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Ekitaldia<br>Ejercicio<br>39 | Zenbatekoa<br>Importe<br>40 | Talde bateko partaidea<br>Forma parte de un Grupo<br>41 ☐ | Sozietate partizipatua<br>Sociedad participada<br>42 ☐ |

## JARDUERAREN ELEMENTU TRIBUTARIOAK / ELEMENTOS TRIBUTARIOS DE LA ACTIVIDAD

### LOKALEN AZALERA: INDUSTRIA JARDUERAK, MERKATARITZAKOAK, ZERBITZUETAKOAK ETA PROFESIONALAK, LOKALETAN BURUTUAK
### SUPERFICIE DE LOS LOCALES: ACTIVIDADES INDUSTRIALES, COMERCIALES, DE SERVICIOS Y PROFESIONALES EJERCIDAS EN LOCALES

| | | | |
|---|---|---|---|
| Jardueraren lokala<br>Local de la Actividad | M2-ak<br>M2<br>50 | Denboraldiko jardueretarako lokalak<br>Locales actividades de temporada | M2-ak<br>M2<br>55 |
| Biltegi estaliak<br>Almacenes cubiertos | M2-ak<br>M2<br>51 | Kirol instalazio estali gabeak. Harmailak<br>Instalaciones deport. Descubiertas. Gradas | M2-ak<br>M2<br>56 |
| Depositu irekiak<br>Depósitos al aire libre | M2-ak<br>M2<br>52 | Kirol instalazio estali gabeak. Gainerakoa<br>Instalaciones deport. Descubiertas. Resto | M2-ak<br>M2<br>57 |
| Aparkaleku estaliak<br>Aparcamientos cubiertos | M2-ak<br>M2<br>53 | Kirol ikuskizun eta instalazio estaliak. Harmailak eta eserlekuak<br>Espect. e instalaciones deport. Cubiertas. Gradas y asientos | M2-ak<br>M2<br>58 |
| Irakaskuntzako lokala<br>Local para enseñanza | M2-ak<br>M2<br>54 | Kirol ikuskizun eta instalazio estaliak. Gainerakoa<br>Espect. e instalaciones deport. Cubiertas. Gradas y asientos | M2-ak<br>M2<br>59 |

Ilundurik dauden laukiak Administrazioak beteko ditu
Las casillas sombreadas a rellenar por la Administración

Administrazioarentzako Alea / Ejemplar para la Administración

| NA/IFZ<br>D.N.I./N.I.F.<br>1 | Deiturak eta izena edo sozietate izena<br>Apellidos y Nombre o Razón Social<br>2 | Anagrama<br>Anagrama |
|---|---|---|

| INDUSTRIA, FABRIKA ETA KONPONKETA JARDUERAK DIRENEAN BETETZEKO<br>A RELLENAR PARA ACTIVIDADES INDUSTRIALES, FABRILES Y DE REPARACIONES | |
|---|---|
| Industriari atxikita instalatu den potentzia Kw-tan<br>Potencia instalada en Kws. afecta al equipo industrial | Kw-ak<br>Kws.<br>60 |
| Probalekuetan instalatutako potentzia Kw-tan<br>Potencia instalada en Kws. en bancos de pruebas | Kw-ak<br>Kws.<br>61 |
| Produkzioari zuzenean atxikitako langile kopurua<br>Nº de obreros afectos directamente a la producción | Langileak<br>Obreros<br>62 |
| Murrizketa aldiberekotasun erregelagatik<br>Reducción por Regla de Simultaneidad | %<br>63 |

| MERKANTZIEN ETA BIDAIARIEN GARRAIO JARDUERAK DIRENEAN BETETZEKO<br>A RELLENAR PARA ACTIVIDADES DE TRANSPORTE DE MERCANCIAS Y VIAJEROS | | |
|---|---|---|
| Ibilgailuaren matrikula<br>Matrícula del vehículo | Matrikula<br>Matrícula<br>65 | |
| Ibilgailuaren edukiera. Tonak edo bidaiari kopurua<br>Capacidad del vehículo. Tonelaje o Nº viajeros | Tona kopurua<br>Tonelaje<br>66 | Bidaiari kopurua<br>N.° de viajeros<br>67 |
| Enpresak zerbitzuan dituen ibilgailu kopurua<br>Nº de vehículos en servicio de la empresa | Kopurua<br>Número<br>68 | |

| OSTALARITZA ETA OSTATU JARDUERAK DIRENEAN BETETZEKO<br>A RELLENAR PARA ACTIVIDADES DE HOSTELERIA Y DE HOSPEDAJE | | |
|---|---|---|
| Establezimenduan dauden jolas makinak<br>Nº de máquinas recreativas en el establecimiento | "A" makinen kop.<br>Nº máquinas "A"<br>70 | "B" makinen kop.<br>Nº máquinas "B"<br>71 |
| Establezimenduaren kategoria ostatu ematen badu<br>Categoría establecimiento en caso de hospedaje | Kategoria<br>Kategoría<br>72 | |
| Gela edo plaza kopurua ostatu ematen badu<br>Nº de habitaciones o plazas en caso de hospedaje | Kopurua<br>Número<br>73 | |

| ONDASUN HIGIEZINEN ALOKAIRU JARDUERAK DIRENEAN BETETZEKO<br>A RELLENAR PARA ACTIVIDADES DE ALQUILER DE BIENES INMUEBLES | |
|---|---|
| Ondasun higiezinen balio katastral osoa<br>Valor catastral total de los bienes | Balioa<br>Valor<br>75 |

| BESTE APARTATUETAN AIPATU EZ DIREN GAINERAKO JARDUERAK<br>RESTO DE ACTIVIDADES NO COMPRENDIDAS EN OTROS APARTADOS | | |
|---|---|---|
| Elementu tributarioaren izena / Nombre del elemento tributario<br>80 | Gakoa<br>Clave | Kopurua / Número<br>81 |
| Elementu tributarioaren izena / Nombre del elemento tributario<br>82 | Gakoa<br>Clave | Kopurua / Número<br>83 |
| Elementu tributarioaren izena / Nombre del elemento tributario<br>84 | Gakoa<br>Clave | Kopurua / Número<br>85 |
| Elementu tributarioaren izena / Nombre del elemento tributario<br>86 | Gakoa<br>Clave | Kopurua / Número<br>87 |

| BESTELAKO DATUAK<br>OTROS DATOS | | |
|---|---|---|
| Epigrafeak kuota aldatzen duen oharrik badu, adierazi zein<br>Si el epígrafe tiene nota que altere la cuota: Indicar | Oharra / Nota<br>90 | Oharra / Nota<br>91 |
| Jarduera bat baino gehiago egiten bada: nagusiaren epigrafea<br>En caso de ejercer más de una actividad: Epígrafe de la principal | Sekzioa / Sección<br>92 | Epigrafea / Epígrafe<br>93 |
| Kuotaren gehikuntza<br>Incremento de cuota | %<br>94 | %<br>95 |
| Salbuespen eskaera 96<br>Solicitud de exención 96 | | Gakoa / Clave |

Lekua eta Data
Lugar y Fecha ..........................................................

Subjektu pasiboaren eta ordezkariaren sinadura
Firma de Sujeto Pasivo y del presentador

Ilundurik dauden laukiak Administrazioak beteko ditu
Las casillas sombreadas a rellenar por la Administración

Administrazioarentzako Alea / Ejemplar para la Administración

Aitorpen honetan emaniko datuetan oinarriturik, Jarduera kalifikatzeari eta Zergaren Matrikulan sartzeari ekiten dio Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Zergaren Tarifaren arabera dagozkizun Sekzioa eta Epigrafea izendatu zaizu.

Aitorpen honetan eman dituzun datuekin, dagokion behin-behineko likidazioa egingo du Gipuzkoako Foru Dipuzazioak, zeuri zuzenean jakinaraziko zaizularik.

Aipatutako behin-behineko likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo urteetan ordainagiri bidez bilduko dira Zergaren kuotak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirubilketa Erregelamenduaren IV. Kapituluak xedatzen duenarekin bat etorriz.

Egiten duzun jarduerari jarritako kalifikazioaren aurka, birjarpen errekurtsoa tartejar dezakezu bulego honen aurrean, edo erreklamazioa Foru Epaitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean, hamabost eguneko epean, baina ezin izango dituzu biak aldiberean jarri.

---

Conforme a los datos aportados en esta declaración se procede por esta Diputación Foral de Gipuzkoa a la calificación de la Actividad, señalandole la Sección y el Epígrafe que le correspondan conforme a la Tarifa del Impuesto, y a su inclusión en la Matrícula de Impuesto.

De acuerdo con los datos aportados por Vd. en esta declaración, la Diputación Foral de Gipuzkoa practicará la liquidación provisional correspondiente que le será notificada individualmente.

Una vez notificada la citada liquidación provisional los siguientes años las cuotas del Impuesto se recaudarán mediante recibo de conformidad con lo dispuesto en el Capítulo IV del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Contra la calificación de la actividad realizada puede interponer recurso de reposición ante esta Oficina o reclamación ante el Tribunal Económico Administrativo Foral en el plazo de quince días, no pudiendo simultanear ambos.

| | | |
|---|---|---|
| Gipuzkoako Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Gipuzkoa<br>Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentua<br>Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas<br>www.gipuzkoa.net/ogasuna<br>*8400081312003* | **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga**<br>**Impuesto sobre Actividades Económicas**<br>Jardueren aitorpena<br>Declaración de Actividades<br>ALTA / ALTA ☐ BAJA / BAJA ☐ ALDAKETA / MODIFICACION ☐ | **840**<br>Jarduéraren zk.<br>Nro. Actividad |

## SUBJEKTU PASIBOA / SUJETO PASIVO

| NA/IFZ<br>D.N.I./N.I.F. | Deiturak eta izena edo sozietate izena<br>Apellidos y Nombre o Razón Social | Anagrama<br>Anagrama |
|---|---|---|
| 1 | 2 | |

## AURKEZLEA / PRESENTADOR

| NA/IFZ<br>D.N.I./N.I.F. | Deiturak eta izena edo sozietate izena<br>Apellidos y Nombre o Razón Social | Telefonoa<br>Teléfono |
|---|---|---|
| 10 | 11 | 12 |

| Helbidea: kalea edo plaza<br>Dirección: Calle o Plaza | Zenbakia<br>Número | Letra<br>Letra | Eskailera<br>Escalera | Oina<br>Piso | Eskua<br>Mano |
|---|---|---|---|---|---|
| 13 | | | | | |

| Udalerria<br>Municipio | Posta kodea<br>Código Postal | Gakoa<br>Clave | Probintzia<br>Provincia | Gakoa<br>Clave |
|---|---|---|---|---|
| 14 | | | 15 | |

Lekua eta data
Lugar y Fecha ..........................................................................................

Subjektu pasiboaren eta ordezkariaren sinadura
Firma de Sujeto Pasivo y del presentador

# Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
# Inprimakia betetzeko jarraibideak

Inprimaki hau honetarako erabiliko da:
JEZan alta hartzeko.
JEZan baja hartzeko.
JEZari dagozkion datuak aldatzeko.

**ARAU OROKORRAK**

- Aukeratu ALTA, BAJA edo ALDAKETA dagokion laukian "X" bat jarriz.
- Lauki ilunduak ez bete.
- Adierazi beti ondoko hauek:
  - **1. LAUKIA**: subjektu pasiboaren NA edo IFZ.
  - **2. eta 3. LAUKIAK**: subjektu pasiboaren deiturak eta izena edo sozietate izena, eta telefonoa.
  - **4tik 6ra arteko LAUKIAK**: subjektu pasiboaren zerga helbide osoa.
  - **10etik 15era arteko LAUKIAK**: ordezkariaren edo aurkezlearen datuak.

**I. JEZan ALTA HARTZEA: ZER BETE**

a) JARDUERA GUZTIETAN:

- **Jardueraren datuak:**
  - **20tik 30era arteko LAUKIAK**: jardueraren helbide osoa.
  - **31. LAUKIA**: egindako jarduera edo egin beharrekoa.
  - **34. LAUKIA**: jardueraren hasiera eguna.
  - **36. LAUKIA**: jardueraren esparrua: UDALA-PROBINTZIA- ESTATUA.
- **Zerga helbidea Gipuzkoatik kanpo duten subjektu pasiboentzat soilik:**

Apartatu hau JEZaren subjektu pasiboek beteko dute baldin eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurkeztutako beste edozein aitorpenetan eragiketa bolumenik adierazi ez badute. Zerga helbidea Gipuzkoatik kanpo duten subjektu pasiboak izango dira normalean.

- **38. LAUKIA**: **Jarduera hasi den urtea:** adierazi zein urtetan hasi den jarduera, dela foru lurraldean dela lurralde komunean.

  Jarduera batean lehenago beste titularitate batekin aritu bada, jarduera horri ez zaiola hasierarik ematen ulertzen da; zirkunstantzia hori betetzen da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jarduera adarren ekarpenak egiten direnean.
- **Eragiketa bolumena:**
  - **39. LAUKIA**: **Ekitaldia:** aurreko urtean aitortu behar zen zergaldia izango da. Adibidez: 2003. urtean baldin bagaude, 2002. urtean aitortu zen zergaldia adieraziko da, hau da, 2001. urtea.
  - **40. LAUKIA**: **Zenbatekoa:** eragiketa bolumena aitortuko da, hau da, subjektu pasiboak, bere jardueraren barruan egindako ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak direla-eta, ekitaldi batean lortutako kontraprestazioen zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekargua kenduta, halakorik badago.

    Ondasun salmenta eta zerbitzu prestaziotzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen legerian hala definituta dauden eragiketak.

    Aurreko ekitaldia urtebetekoa baino laburragoa bada, eragiketa bolumenaren zenbatekoa urte osoari dagokiona izango da, ekitaldian egindako eragiketetatik abiatuta.

    KASU BEREZIA eragiketa bolumenaren zenbatekoa kalkulatzean:
    - Sozietate talde bateko partaide bazara Merkataritza Kodearen 42. artikuluari jarraiki, taldearen eragiketa bolumena aitortu behar duzu. 40. LAUKIA.
  - **41. LAUKIA**: **Talde bateko partaidea:** Gurutze batez seinala ezazu sozietate talde bateko partaide zarenean Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotakoren arabera.
  - **42. LAUKIA**: **Sozietate partizipatua:** Gurutze batez seinala ezazu salbuetsita ez dauden enpresek sozietatearen kapitalean parte hartzen dutenean eta partaidetza hori, zuzenean zein zeharka, %25etik gorakoa denean. Alabaina, enpresa horiek Sozietateen gaineko Zergari buruzko 7/1995 Foru Arauaren 59. eta 60. artikuluetan aipatutakoak badira (kapital-arriskuko fondo edo sozietateak edo enpresen sustapenerako sozietateak), ez da ezer jarriko baldin eta partaidetza hori sozietate horien xede soziala betetzearen ondorio bada.
- **Jarduera lokal batean egiten bada:**

**50etik 59ra arteko LAUKIAK**: adierazi jarduerari zuzenean atxikita dauden lokalen azalera, metro karratuak neurtuz eta, hala badagokio, solairu guztietako azalerak batuz.
Kontzeptu bakoitzeko aitortu behar duzu azalera, murrizpenik edo hobaririk aplikatu gabe.

b) FABRIKA ETA KONPONKETA JARDUERAK:

- **60. LAUKIA**: industri ekipamendu elektriko edo mekanikoari atxikitako elementu energetikoetan instalatutako potentzia Kw-ak.
- **61. LAUKIA**: probalekuak, saio-plataformak eta antzekoak dituenean, atxikia duten potentzia aitortuko da.
- **62. LAUKIA**: jarri zenbat langilek osatzen duten enpresaren produkzioari zuzenean atxikitako plantila.

  Langile kopurua kalkulatzeko honako hau hartu behar da kontuan:

  1)Enpresarentzat etxean lan egiten duten langilerik edukiz gero, eragiketa honen emaitza adieraziko da: langile horien balio ekonomiko erantsia zati espezialitatearen urteko lansari unitarioaren batez besteko ponderatua.

  2)Behin-behineko langileak edo aldizkako langile finkoak edukiz gero, eragiketa honen emaitza hartuko da: horiek lan egindako egunak zati urteko lan egun kopurua.

  3)Lanaldi partzialeko kontratua duten langile finkoak edukiz gero, eragiketa honen emaitza hartuko da: urtean lan egindako ordu kopurua zati egun osoko lanaldian egingo ziren ordu kopurua.
- **63. LAUKIA (Administrazioak bete beharrekoa)**: Aldiberekotasun Erregelagatik aplikatzen den murrizpenera biltzen bazara, adierazi egin behar duzu eskaera bat erantsiz.

c) GARRAIO JAREDUERAK

- **65. LAUKIA**: jarri ibilgailuaren matrikula.
- Jarri ibilgailuaren edukiera.
- **66. LAUKIA**: merkantziak garraiatzen badira, ibilgailuaren karga tonak jarriko dira.
- **67. LAUKIA**: bidaiariak garraiatzen badira, adierazi zenbat bidaiari eraman ditzakeen ibilgailuak.
- **68. LAUKIA**: merkantziak garraiatzen badira eta zerbitzuan hamar ibilgailu baino gehiago badaude, adierazi zenbat ibilgailu dauzkan enpresak alta emanda.

d) OSTALARITZA ETA OSTATU JARDUERAK

- **70. eta 71. LAUKIAK**: establezimenduan jolas-makinarik instalatu baduzu, adierazi zenbat diren "A" motakoak eta zenbat "B" motakoak.
- Ostatu jardueren kasuan honako hau ere jarriko da:
  - **72. LAUKIA**: establezimenduaren kategoria.
  - **73. LAUKIA**: gela kopurua eta, kanpalekuen kasuan, plaza kopurua.

e) ONDASUN HIGIEZINEN ALOKAIRU JARDUERAK

- **75. LAUKIA**: adierazi alokairuan dauden ondasun higiezinen balio katastralen batura, hala ondasun higiezin hiritarrena nola ondasun landatarrena. Ondasun higiezin hiritarren kasuan, errentan emandako etxebizitzak eta lokal komertzial zein industrialak hartuko dira.

f) GAINERAKO JARDUERAK

- **80tik 87ra arteko LAUKIAK**: adierazi kuota kalkulatzean kontuan hartu diren elementu tributarioak. Jarri horien izena eta, hala badagokio, baita kopurua ere.
- Adibidez:
  - Jolas makinen titularra bazara hauxe adierazi behar duzu: makina ustiatzeko baimenaren zenbakia, modeloa eta serie zenbakia.
  - Publizitate enpresen kasuan, enpresaren langile kopurua.
  - Ibilgailu, neurketarako tresna eta antzekoak alokatu badira: zenbat ibilgailu, aparatu, etab. alokatu diren.
  - Sustapen inmobiliarioko jardueretan, adierazi zenbat metro karratu azalera saldu diren guztira sustapenean.
  - Kuotan bestelako elementu tributarioak kontuan hartu badira, lauki hauetan aitortuko dira.

g) BESTELAKO DATUAK

- **90. eta 91. LAUKIAK**: epigrafeak kuota aldatzen duen oharren bat baldin badu eta horretara bildu nahi bazara, jarri oharraren zenbakia.
- **92. eta 93. LAUKIAK**: jarduera bat baino gehiago egiten baduzu, enpresak egiten duen jarduera nagusiaren Sekzioa eta Epigrafea jarriko dira.
- **96. LAUKIA**: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak 5. artikuluaren e), f) eta g) letretan aipatzen dituen salbuespen kasuetan bazaude, adierazi hori salbuespena eskatzeko idazkia erantsiz. Esan, baita ere, zein araudiren arabera eskatzen duzun salbuespena.

  5. artikuluaren h) letran jasotako salbuespena eskatu nahi izanez gero, eskaera dagokizun Udalean aurkeztu behar duzu.

**II. JEZan BAJA HARTZEA. ZER BETE:**

- **34. LAUKIA**: jarduera utzi den eguna.
- **35. LAUKIA:** jardueraren ordainagiri zenbakia.

**III. JEZan ALDAKETAK EGITEA. ZER BETE:**

- **34. LAUKIA**: aldaketaren data.
- **35. LAUKIA**: aldatzen den jardueraren ordainagiri zenbakia.
- Jardueraren datu berriak, alta aitorpena betetzeko jarraibideen arabera adieraziko dira.

AITORPENA AURKEZTEAN ERAKUTSI BEHARREKO AGIRIAK

- Nortasun Agiria (Partikularrek).
- Identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartela. (Pertsona juridikoek, ondasun komunitateek eta ZFAOren 33. artikuluan aipatutako beste entitateek).
- Errepide bidezko garraio jardueren alta aitorpenak direnean: ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia.
- Aldaketa aitorpenak pertsona juridikoen izaera aldatzeko aurkezten direnean: identifikazio fiskaleko zenbaki berriaren fotokopia.

# Impuesto sobre Actividades Económicas
# Instrucciones para cumplimentar el impreso

Este impreso se utilizará para:
Darse de alta en I.A.E.
Darse de baja en I.A.E.
Modificar datos relativos al I.A.E.

**NORMAS GENERALES:**

- Marcar con una "X" la casilla correspondiente a ALTA, BAJA ó MODIFICACION.
- No rellenar las casillas sombreadas.
- En todo caso rellenar:
  - **CASILLA 1**: D.N.I: o N.I.F. del sujeto pasivo.
  - **CASILLAS 2 y 3**: Apellidos y Nombre o Razón Social del sujeto pasivo y teléfono.
  - **CASILLAS 4 a 6**: Domicilio fiscal completo del sujeto pasivo.
  - **CASILLAS 10 a 15**: Datos personales de representante o presentador.

**I. ALTA EN I.A.E.: CUMPLIMENTAR**

a) EN TODAS LAS ACTIVIDADES:

- **Datos de la actividad:**
  - **CASILLAS 20 a 30**: Domicilio completo de la actividad.
  - **CASILLA 31**: Actividad ejercida o a ejercer.
  - **CASILLA 34**: Fecha de comienzo de la actividad.
  - **CASILLA 36**: Ambito de la actividad: MUNICIPAL-PROVINCIAL-ESPECIAL ESTATAL.
- **Sólo para sujetos pasivos con domicilio fiscal fuera de Gipuzkoa:**

Este apartado lo rellenarán aquellos sujetos pasivos del IAE que no hayan consignado el importe del volumen de operaciones en ninguna declaración tributaria presentada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, que normalmente coincidirá con aquellos sujetos pasivos con domicilio fiscal fuera del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

- **CASILLA 38**: **Año de inicio de la actividad:** Indicar el año en que inició por primera vez la actividad, tanto en Territorio Foral como en Territorio Común.
  No se considera que se ha producido el inicio del ejercicio de una actividad cuando la misma se haya desarrollado anteriormente bajo otra titularidad, entre otros supuestos, en los casos de fusión, escisión o aportación de ramas de actividad.
- **Volumen de operaciones:**
  - **CASILLA 39**: **Ejercicio:** Se refiere al período impositivo cuya declaración debió presentarse el año anterior. Por ejemplo, si estamos actualmente en el año 2003 habrá que indicar el período impositivo que se declaró el año 2002, que será, normalmente, el 2001.
  - **CASILLA 40**: **Importe:** Se declarará el importe del volumen de operaciones que es el importe total de las contraprestaciones, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido y el recargo de equivalencia, en su caso, obtenido en un ejercicio por el sujeto pasivo en las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas en su actividad.
    Tendrán la consideración de entregas de bienes y prestaciones de servicios las operaciones definidas como tales en la legislación reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido.
    Si el ejercicio anterior fuese inferior a un año, el importe del volumen de operaciones será el resultado de elevar al año las operaciones realizadas durante el ejercicio.
    EXCEPCION en cuanto al cálculo del importe del volumen de operaciones:
    - En caso de que forme parte de un Grupo de sociedades conforme al art. 42 del Código de Comercio. Deberá declarar el volumen de operaciones del Grupo. CASILLA 40.
  - **CASILLA 41**: **Forma parte de un Grupo:** Marcar con una "X" en caso de que forme parte de un Grupo de sociedades conforme al art. 42 del Código de Comercio.
  - **CASILLA 42**: **Sociedad participada:** Marcar con una "X" en caso de que se halle participada directa o indirectamente en más de un 25 por 100 por empresas que no estén exentas, excepto que se trate de fondos o sociedades de capital riesgo o sociedades de promoción de empresas (arts. 59 y 60 de la NF 7/1996 del IS) cuando la participación sea consecuencia del cumplimiento del objeto social de estas últimas.
- **Si la actividad se ejerce en local:**

**CASILLAS 50 a 59**: Indicar los metros cuadrados de superficie de los locales, afectos directamente a la actividad, midiendo la totalidad de los mismos, y sumando, en su caso, la superficie de todas las plantas.
Debe aplicar la superficie por cada concepto, sin aplicar reducciones ni bonificaciones.

b) EN LAS ACTIVIDADES FABRILES Y DE REPARACIÓN:

